

Ezpalak

JON TORNER

Blogak & Letrak jardunaldiak egingo dituzte ekainean Larrabetzun



EKAINAREN 6AN, arratsalde, “deskonferentzia” antolatu dute Larrabetzun: blogak literatura-rekin duten harremanaz mintzatuko dira hainbat idazle eta blogari, Literatura ekimenaren barruan. *Emailuetatik Volgara. Post-literatura* izeneko hitzaldia-rekin hasiko da jardunaldia, Patxi Gaztelumendiren eskutik.

Ondoren mintzatuko dira Luistxo Fernandez, Juan Luis Zabala, Julen Gabiria, Beñat Sarasola, Gorka Bereziartua, Katixa Agirre eta Josu Landa, armiarma.com-en izenean. Besteak beste liburu elektronikoaz eta argitalpen lizentziei buruz eztabaidatuko dute, eta saioa bukatzeko poesia errezialdia eskainiko du Imanol Epeldek. Informazio gehiago www.larrabetzu.org/literaturia helbidean.

Hilaren 22an egingo da Arabatakada

EHUREN GASTEIZKO CAMPUSEKO ikasleek antolatuta, Arabatakada jaialdia egingo da hilaren 22an Mendizabal-an. Hamar musika taldek hartuko dute parte: Yaw, Zaunka, Sixty Sexers, Izate, Txapelpunk, Deabruak Teilatuetan, Des-Kontrol, Vendetta, Sociedad Alkoholika eta Tximeleta. Interneten: www.myspace.com/arabatakada.

Aritz Gorrotxategik *Axola ez duenean* (Alberdania) nobela kaleratu du. Irene protagonistaren bakardade, hutsune eta gabeziatik abiatuta, “nobela sentimental” idatzi du Gorrotxategik.

Francisco Hernandez Sanchez

Xabier Obeso eta Juan Jose de Garay Jaurerri pintoreen erakusketak paratu dituzte Donostiako Kutxa Boulevard aretoetan. hiru erakusketak maiatzaren 31era arte izango dira ikusgai. Albokoa Hernandez Sanchezen *Saturrarango bon-dartz* izeneko koadroa da.



Agustin Gonzalez Azilu

konpositore altsuarrak jaso du Nafarroako Kultur Kontseiluak eman ohi duen Vianako Printzea kultur saria, musika arloan egindako ibilbide oparoagatik. Saria irabazteko beste hautagaiak ziren Bilaketa kultur elkarte eta Lorenzo Ondarra eta Jesus Maria Muneta konpositoreak.

Txapelpunk

taldea *¡Vaya full!* disko berria aurkezten ari da han-hemenka. Zehaztutako hurrengo kontzertuak: Gasteiz (maiatzak 22), Mirafuentes (23), Pasai Donibane (29) eta Elizondo (30). Taldearen webgunea: www.myspace.com/txapelpunk.

● Josu Zabala *Hertzainak* taldeko kideak *Deian*, duela 25 urte plazaratu zuten lehenengo diskoak:

«Dakidana da Gasteizen izan zuen harrera. Han ikaragarria izan zen. Kolpe itzela. Nire ustez Gasteiz zen garai hartako kultur hiriburua, erreferentzia bat, eta laster batean zabaldu zen. Oso kontu berezia da euskal rocka euskaraz oso gutxi mintzatzen zen lekuetan agertu izana. Azkoitin Jotakie zegoen eta eurek arrakasta gutxiago izan zuten, esaterako. Mantsuago zabaldu zen euskaraz eginiko rocka leku euskaldunetan; besteetan masiboa izan zen».

● Iñigo Muguruza Sagarroi taldeko kidea elkarrizketatu du *Bizkaie!* atariak. Zinemagintzaz aritu da:

«Pare bat film labur eginda daukadaz, baina orain zinegintzea guztiz baztertuta daukat. Konplikatu da mundu hori, dirua lortu behar da, produkzio lanak egin eta lan hori guztia sano neketsua da. *Berandu da oraindik* film laburra filmetako zailtasun handiak izan

nituan. Ez dakit nork esan eban ez zala sekula filmau behar ume eta animaliakaz eta nik konprobau ahal izan neban hori egia borobila dala».

● Manex Pagola idazle eta kantariak *Euskonews & Media* agerkari elektronikoa:

«Aktualitatea segitzen dut. Kantaldiak, bertsu saioak, antzerkiak... Horiek denak ikusten ditudalarik, iruditzen zait irauten dutela harrigarriki. Bada eskaintza zabal bat, gehienetan kalitate handikoa, edozein sailetan. Oso pozik nago potentzial handi bat ikusten baitut. Eskaintza guzi hori proposatzeko lan anitz egin behar da. Eta harriria naizela diot ditugun baliabideak ez baitira batere handiak. Nire iritziz kultur gintzan egiako baliabideak beharrezkoak dira euskal kulturak iraun dezan. Ikusiz diren medio guztiekin dagoen ondorio ederra, behar diren medioak izanez geroz, emaitza oraino eta aberatsagoa izanen zen».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

XXI. mendeko zalduntza liburuen Kixotea

Il pendolo di Foucault. Umberto Eco.
(Bompiani 1988).

EL QUIJOTE, literaturaren historiako eleberririk ezagunena –bat nator onena ere badela diotenekin–, zalduntza liburu ezagunaren barre egiteko ondu zuen Cervantesen eskumako eskuak. Nago, ez ote zioten ezkerrekoa, Lepantoko guduan galdu zuena, Umberto Ecoren arbasoren bati txertatuko. Orain gutxi Ecoren *Foucault-en pendulua* berrirakurtzeak eragin zidan arestiko hausnarketa bitxia. Jakina, testuingurua asko aldatu da lehen aldiz irakurri nuenetik hona; orduko hartan salbu ginen, artean, Dan Brown-ek, Da Vinciren kodeez eta ondoren zabalduak tenplario eta Maria Magdalenazaleen epidemiaz. Oraingo honetan, aldiz, ezin konparazioa saihestu.

Liburu-dendetako apalategi onenetatik espioitza eta suspensea bota dituen genero berria –konspirazio erlijioso-historikoa esango diot, izen hoberik ezean–, irakurzaletasunaren zifrak zertxobait puatu eta literaturaren kalitatearenak zeharo hondoratu dituen genero horixe, sortu aurretik zegoen barregarri gelditzera kondenatuta, *Foucault-en pendulua*-ri esker hain zuzen. Ecoren eleberriko hiru protagonistek, hasieran jolas modura, tenplarioek zazpi mende lehenago ehundutako konspirazio kosmiko bat asmatzen dute, baina azkenerako sinetsi egiten dute sortu-



Valentziako Arte eta Zientziaren Hirian dagoen Foucault-en pendulua.

tako fikzioa. Kito. Genero osoa agortu zuen *Foucault-en pendulua*-k, generoa jaio aurretik. Eta hala eta guzti jaio egin zen, besteak beste diru asko ematen duelako. Baina haien burbuila ere hustuz doa gutxika, eta plazer da orain, patxada pixka batekin, Ecoren maisulana berreskuratzea. Gaurko begiz irakurrita, tenplario eta enparauen nobelen parodia bikaina suertatzen da. Kixotea zalduntza liburuena izan zen bezala.

Ohar bat, badaezpada lerro hauek liburua irakurtzeko grina piztu dizuen: Ecore oso ondo idazten du, baina bidesaria ordainaraziko dizu. *Arrosaren izena*-n, esaterako, sekulako eleberria eskaintzen du aldiro lau orrialdeko deskripzio astunak jasatearen truke. *Foucault-en pendulua*-n, batez ere lehenengo kapitulua da irensteko oso latza. Kulturaz jantziegia. Agian Ecore ez du edozein irakurle nahi.

Victoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

LIBURUTEGI BIZIDUNAK

• JUDIMENDI

Tximulogia, Jon Plazaola.
Maiatzak 27, 19:00 (helbeduak)

• ABETXUKO

Nire baitan izango zara beti
Iñaki Carretero eta Uxue Zapata
Maiatzak 29, 18:30 (familia osoarentzat)

PRINCIPAL ANTZOKIA

Hnuu Ila. Tanttaka+Kukai dantza
Ekainak 5, 20:30

KALDEARTE

Gasteizko kaleetan antzerkia, dantza, musika
eta sorpresa asko ikusteko aukera paregabea!
Ekainaren 12tik 14ra.

FOLKLORE AKADEMIA

Dantza plazan
Aihotz plaza; maiatzak 22 eta 29, ekainak 5,
20:00
Abetxuko; ekainak 19, 20:00

JOLAS JAIALDIAREN HASIERA

Jolas jaialdia auzoetan:
Zabalzana (Eskibel ibilbidea)
Judimendi (Sefarad plaza)
Abetxuko (Kooperatiba plaza)
Alde Zaharra (Eskoniaza-Eskibel eta Etxanobe)
Ekainaren 15tik 18ra, 17:00-21:00

PARKEGUNA

Judimendi parkea
Familia osoarentzako jolasak eta lantegiak
Maiatzak 30, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00

JOSTAILUAK TRUKATZEA

Aihotz plaza
Elkarriz jostailuak trukatzeko aukera
Ekainak 6, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00

GAUEKOAK PROGRAMA

Brokeback mountain filma euskaraz.
Ekainak 12, Luis de Ajuria aretoa, 19:30.
Lady soka antzezlan.
Ekainak 12, Aldabe antzokia, 23:30

MINTZA EGUNA

Aurten Mintzalaguna egitasmoaren kideok
Gasteizen
elkartuko gara egun hau ospatzeko: ibilbidea,
herri-bazkaria, erromeria...
Ekainak 6

ETORRI ETA GOZATU GUREKINI!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala